

107E/2024 EBAZPENA, abenduaren 5ekoa, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailearena, Dorraoko Kontzejuari, Deierriko Udalari eta Saldiasako Udalari, udal eremuan euskara erabiltzeko eta sustatzeko 2024ko laguntzen deialdian, esleitu eta justifikatu ez dituzten laguntzak ez ordaintzea ebazten duena.

ERREFERENTZIA: **Espediente kodea: 0011-1272-2024-000000**

KUDEAKETA UNITATEA: Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentua
Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua
Euskara Sustatzeko Atala
Tel.:848 426054
Helbidea: Paulino Caballero, 13, 31002 Iruña
Posta elektronikoa: sustapena@navarra.es

ESPEDIENTEA

Espediente mota: Toki entitateentzako laguntzak 2024an euskara erabiltzeko eta sustatzeko

Apirilaren 5eko 28E/2024 Foru Aginduaren bidez, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko kontseilariak “Toki entitateek euskara erabiltzeko eta sustatzeko laguntzen deialdia” onetsi zuen.

Ondoren, Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak emandako uztailaren 18ko 59E/2024 Ebazpenaren bidez, laguntzen deialdia ebatzi zen.

Laguntzak justifikatzeko agiriak aurkezteko epea amaiturik, Dorraoko Kontzejuak, Deierriko Udalak eta Saldiasako Udalak ez dute dokumentaziorik aurkeztu.

Euskararen Sustapen eta Planifikazio Zerbitzuak proposamena egin du aipatutako toki entitate horiei esleitu zitzaizkien dirulaguntzak ez ordaintzeko, eta bide batez onetsitako diru-kopuru horiek askatzeko.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 32.1.d) eta 44. artikuluek eta Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onetsi zituen azaroaren 15eko 240/2023 Foru Dekretuaren 11. artikulua ematen dizkidan ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

1. Dorraoko Kontzejuari, Deierriko Udalari eta Saldiasako Udalari onetsitako laguntzak ez ordaintzea, udal eremuan euskara erabiltzeko eta sustatzeko 2024ko laguntzen deialdian esleitutako laguntza horiek ez justifikatzeagatik.

2. Aipatutako toki entitate horiei esleitutako diru-kopurua, 1.964,16 euro osotara, askatzea ondoko datuen arabera:

Espediente zenbakia	IFZ	Izena	Aurrekontuko Partida	Urtea	Esleitutakoa askatu
0011-1272-2024-000011	P3167700H	DORRAOKO KONTZEJUA	G/B30002/B3200/4609/334100	2024	178.56
0011-1272-2024-000041	P3126000C	DEIERRIKO UDALA	G/B30002/B3200/4609/334100	2024	1.249,92
0011-1272-2024-000088	P3121300B	SALDIASKO UDALA	G/B30002/B3200/4609/334100	2024	535.68

3. Ebazpen hau jakinaraztea toki entitate eskatzaileei, eta igortzea Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuan duen Kontu-hartzailetza Delegatura, departamentu horretako Idazkaritza Tekniko Nagusira, eta Kudeaketa Administratibo eta Ekonomikoaren Ataleko Kontabilitate Zentrora; Euskarabideko Euskara Sustatzeko Atalera eta Euskarabideko Langileriaren eta Azpiegituren Kudeaketa Administratiboaren Atalera, eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalera, bidezko ondorioak izan ditzan.

4. Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Iruñean, 2024ko abenduaren 5ean.

EUSKARABIDEA-EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA
Javier Arakama Urtiaga |